

Erregina barrez

Herrialde urrun batean, etxe eder bat zegoen eta bertan familia bat bizi zen. Zoriontasuna zer zen jakin nahi zuenak etxe hartara inguratu baino ez: haien jolasak, kantak, barreak eta txantxak atzematean pozaren pozez bizi zirela konturatzen zen. Baina hori al zen zoriontasuna? Familia hartako neska txikia denek maite zuten; izugarri maite, atsegina eta alaia zen eta etxeke erregina zela esaten zioten denek: “Erregina” gora eta “erregina” behera; haren desioak agindu bilakatzen ziren etxeke guztientzat.

Gure neskatxo hura urtez urte hazi zen, etxeke erregina zelakoan pozik. Baina handitu zenean, zoriontasun hura hautsi zen mila pusketan. Legeek eta herrialde hartako ohiturek agintzen zuten neska guztiek, behin adin jakin batera iristen zirenean, nahitaez ezkondu behar zutela, bestela baztertu egiten zituzten eta bizimodu triste bat baino ez zuten izaten aurrerantzean.

Hala, etxeke erregina hura triste jartzen hasi zen: ez zuen ezkondu nahi, bere bizimoduarekin aurrera egin nahi zuen eta bere gisa gauzak erabaki. Gainera, inongo neska edota mutilik ez zuen ezagutzen haren ondoan bizitza osoa pasako zuela pentsa arazten zionik; are gutxiago haren menpe biziko zela agintzen bazion. Baina denborak aurrera egin zuen eta gure erregina txikia gero eta tristeago eta gurasoak benetan urduri jarri ziren, zer egin jakin gabe.

Gaixotu egin zen neska eta lurraldeko sendagile, azti eta petrikilo guztiak inguratu ziren neska aztertu eta haren gaixotasuna uxatzeko asmotan. Baina ezin; neska gero eta tristeago zegoen eta irribarre txiki bat ere ez zen haren ezpainetan ikusten. Hala ere, inguruko mutil gazte guztiak etxe hartara inguratzen hasi ziren, neska adinean sartuxea zela eta harekin ezkontzeko esperantzaz. Baina neska horietako bakoitza ikustean, negarrez, aieneka eta lanturuka hasten zen eta lurralde guztian entzuten ziren haren hasperen eta uluak...

Gurasoak gero eta tristeago jarri ziren; ez zuten neska ezkondu nahi haren borondatearen kontra, baina iruditzen zitzaaien neskarentzat ona izango zela ezkontzea lurralde hartako ohiturek agintzen zuten moduan... Eta halako batean, aitari otu zitzaion ideia on bat: nire alaba ezkonduko da bakarrik barrea eragiten dionarekin.

Etxe hartatik urrun, bi anaia bizi ziren etxola txiro batean. Aitaren iragarkia heldu zitzaielarik, bere baitan pentsatu zuten agian irribarre bat aterako ziotela neska hari; ahalegina egin behar zutela bederen.

Hala, anaia zaharrenak sagar gorri-gorritz beteriko otarre bat hartu zuen eta bideratu zen aurrera eta aurrera, joan eta joan neska haren etxe aldera. Bidean hala doala, sorgin zulo bat ikusten du, eta bertan atso zahar bat zulora eroria, gainera zulo hartatik atsoa inondik ere ateratzeko ahalmenik ez zuela. Laguntza eske hasten zaio bada atsoa garrasika, baina tutik ere begiratzen ez diola, badoa gure mutila aurrera neska harekin ezkontzeko presaz. Baina erreginak sagar haiek ikustean, berehala baztertzen ditu eta bere hasperenak uluak bilakatzen dira.

Anaia gazteena etxolan bakarrik geratu zenean, bakardade handia sentitu zuen. Pentsatzen hasi zen ez ote zen bera ere inguratuko hirira, bere bizimoduarekin zer edo zer egitera. Agian lanbide eder bat ikasiko zuen nonbaiten, hobeto bizitzeko aukera zabalduko zitzaionaren esperantzan.

Beraz, esku-hutsik badoa bigarren anaia bidean aurrera, eta sorgin zulo haren aurretik pasatzen ari dela sorginaren deiadarrak entzuten ditu, laguntza eske. Berehala ere handik ateratzen du adar baten laguntzaz.

Sorgina pozik jartzen da eta esaten dio:

–Zer sari emango dizut ordainetan? Nahi al duzu fortuna egin?

Mutil gazteak kontatzen dizkio bere kezkek eta anaiaren gorabeherak. Sorgina irribarrez jarri eta istant batean, txokoan zuen bildots bat eskaini zion esanez:

–Tori bildots beltz hau. Har ezazu zurekin eta eduki beti zure ondoan, ezerगतik ere ez utzi zure besoen artetik alde egiten.

Bere bildotsa besoetan, badoa beraz anaia gaztea erreginaren herriko ostatu batera. Baina ostatuan lekurik ez eta alkatearen etxera bidaltzen dute gaua pasatzera. Han oso-ondo hartu zuten mutila: afaria eman eta bildotsarentzat ukuiluan egingo zutela tokia agindu zioten, azpi belarra eta janari ugariarekin. Beretzako berriz, gela bat atonduko zutela gaua lasai pasatzeko. Gure mutila ezetz eta ezetz tematu zen: bildotsa berekin behar zuela eta inola ere ez zela harengandik apartatuko. Alkatea harritu egin zen, baina zoro bat izango zela pentsatu eta bidali zuen mutila bere gelara, bildotsa besoetan zeramala.

Hurrengo goizean, alkatea horko misterioa jakin nahian, mutikoaren gelako giltza zulotik hasi da beha: hor dago mutila, lotan, bere bildotsa beti besoetan. Sartzen da alkatea gelan eta bildotsa marraka hasten da alkateak belarri batetik heldu nahi dionean. Mutikoa esnatzen da orduan, eta alkateak urduri, ihesari ematen dio, korrika batean, bildots-belarria eskuetan eta mutikoa esnatu berria.

Hasi zen alkatea oihuka eta berehala herriko aguazila lotzen zaio; gero idazkaria ere iratzarri zen eta, ile guztiak harro-harro, tarrapatapan jantzi duen soineko zatar bat, zuloz beterik duela, Alkateari lagundu beharrez, bildotsaren beste belarriari heltzen dio, eta hirurak geratzen dira kateatuak bildotsari eta mutikoari.

Horrela, trumilka atera ziren lauak, bildotsa eta guztiz, baratzera. Lotsaturik zihoazen eta aza hosto batzuez estali nahi izan zuten beren burua. Eta hor doaz, zurrumbilo batean, gure erreginaren etxe aldera. Eta hara non, aza hostoaz ohartu ziren hiru ahuntz eta haiek ere lotu ziren jirabira hartara, aza hostoak ukitu zituzten orduko.

Hurrengo batean, okina pasa zen handik: –Zatoz, mesedez, eta bereiz gaitzazu... Baina okinak bereizi nahi izan zituenean, bera ere pega-pega eginda geratu zen. Arotz bat ere lotu zitzaien geroago, eta ondoren bihurgune batean aurkitu zuten txakurra, eta horrela dantza korda luze bat osatu zuten. Baina denak zaunka, beeka, marraka, kalaka eta garrasika zihoazen erreginaren etxe aldera.

Eta hantxe zegoen alaba gaixoa, lorik ezin egin, haren tristura medio. Baina ikusi zituenean bildotsa, mutikoa, aguazila, idazkaria, ahuntzak, txakurra, okina, arotza... eta dantza-soka hartan elkartu ziren guztiak eta haien zalapartak entzun zituenean, barrez hasi zen, kar-kar, ka-kar, kar-kar... Eta barreari ezin utzi. Halako batean, mutil gaztea tente jarri zen eta gainontzeko guztiak zilipurdika joan ziren belazean behera.

Sorginkeria guztia desagertu zen berehala: mutikoa etxe hartan geratu zen eta lanbide bat ikasi zuen, erreginak ere beste ofizio bat ikasi eta euren artean adiskidetasuna eta laguntza sortu zen betiko.

–Eta ezkondu al ziren?

–Ez dakit. Niri ez didate hori kontatu

Itziar Zubizarreta